

Irurak 1, 3, 5, 7 eta Koruko Andra Mariren 27 atarietarako irisgarritasuna hobetzeko lanen zain egon gara 7 urtez baina, azkenean, gauzatu dira lanak.

Después de una espera de 7 años para que se realizaran las obras de mejora de la accesibilidad a los portales de Irurak 1, 3, 5 y 7, y 27 de Nuestra Señora del Coro; por fin se ha hecho las obras.

## KORRIKA

Gure elkarteak bere eguneroko jardueran euskararekiko konpromesuari eusten dio. Horretaz gain, euskararen aldeko hainbat ekimenetan hartzen du parte. Adibidez, aurtengo Korrikaren edizioan ere lekukoa eraman dugu.



## TAMAINA HANDIKO HONDAKINEN BILKETA
## RECOGIDA DE VOLUMINOSOS

Noizean behin mota honetako irudia aurkitzen dugu gure kaleetan. Gure etxeetako tamaina handiko hondakina botatzeko aukeretako bat izan arren, jakinarazi zaituztegu Intxaurrondon badugula, gur ustez, askoz egokiago, garbuago eta erosoago den beste aukera bat: ETXEZ ETXEKO JASOKETA. Izan ere, Donostiako udalak badu Emaús fundazioarekin kontratu bat tamaina handiko gaiak etxez etxe jasotzeko.
Haiekin harremanetan jartzeko bi bide daude:



**943 63 09 99**
**voluminososdonostia@emaus.com**

**ORDUTEGIA:**
Astelehenetik - Ostiralera
**8:00etatik 20:00etara**

Larunbatetan
**8:00etatik 16:00etara**

De vez en cuando encontramos en nuestras calles una imagen de este tipo. A pesar de ser una de las alternativas para depositar el residuo de voluminosos de nuestros hogares, os informamos de que en Intxaurrondo contamos con otra opción que creemos que es mucho más adecuada, limpia y cómoda: la RECOGIDA A DOMICILIO. De hecho, el ayuntamiento de San Sebastián ya tiene un contrato con la fundación Emaús para recoger a domicilio artículos de gran tamaño.
Existen dos vías de contacto:

**943 63 09 99**
**voluminososdonostia@emaus.com**

**HORARIO:**
Lunes - Viernes
**8:00- 20:00**

Sábados
**8:00 - 16:00**

i_z_be@hotmail.com
@izbeelkartea
izbeelkartea
www.intxaurrondozaharra.wordpress.com

IZBE
# Intxaurrondoko Berriak
IZBE: Intxaurrondo zaharrekob izilagunen elkartea
www.intxaurrondozaharra.wordpress.com

11. Zenbakia | 2024 Maiatza | izbeelkartea | @izbeelkartea | i_z_be@hotmail.com

Esku artean daukazuen hau Intxaurrondoko Berriak aldizkariaren hamaikagarren zenbakia da. Honako hau gure lanaren berri emateko bidetako daukagu. Gurea lan motela eta astuna izan arren, tarteka gure auzora hobekuntzak iristen direla ikusteak indarra ematen digu aurrera jarraitzeko.

Gogoarazi nahi dizuegu gure bilerak irekiak direla eta zuen partehartzea eskertzen dugula eta, zer esanik ez, elkartearen kide bihurtu nahi izanez gero ongi etorria izango zaretela.

Este que tenéis entre manos es el undécimo número de la revista Intxaurrondoko Berriak. Es una de las herramientas que tenemos para haceros llegar información sobre nuestro trabajo. A pesar de ser un trabajo lento y pesado, ver que a ratos llegan mejoras a nuestro barrio nos da fuerzas para seguir adelante.

Queremos recordaros que nuestras reuniones son abiertas y agradecemos vuestra participación y, por supuesto, cualquier persona que quiera incorporarse a la asociación será bienvenida.



## TXAPARRENE

TXAPARRENE pasealekuan oinezkoen segurtasuna bermatzea eskatu dugu behin eta berriz.

1. fasea egina dago; 2.ri lehenbailehen ekitea da orain eskatzen duguna: Intxaurrondoko eta Ategorrietako RENFEko tren geltokien artean.

Hemos solicitado repetidamente, que se tomaran medidas para garantizar la seguridad peatonal en el paseo de TXAPARRENE.

Está hecha la primera fase de mejora; nuestra demanda en este momento es que actúen, cuanto antes, en la otra parte del paseo: entre las estaciones de RENFE de Intxaurrondo y Ategorrieta.

## SKATE

Harrobitxulo aldera lekualdatu ondoren Udalak dio kalistenia eta parcour zonaldea egingo duela lusail honetan. Udalari lursaila irisgarria izan dadin arrapala bat egitea ezinbestekoa dela adierazi diogun arren, proiektuan ez dela kontuan hartzen eta, une honetan dirurik ez dagoela erantzun digute.

El ayuntamiento decidió trasladar el skate a la zona de Harrobitxulo. Parece ser que va a colocar una zona de calistenia y parcour en este espacio. Le hemos señalado al ayuntamiento que es necesario construir una rampa para hacer esta zona accesible y nos han contestado que no está contemplada en el proyecto y que, en este momento, no hay dinero para hacerla.



## MUGIKORTASUN IRAUNKORRARAREN PLANA
## PLAN DE MOVILIDAD SOSTENIBLE

Donostiako udalak berriki ekin dio Mugikortasun Iraunkorraren Plana ekiteari eta helegiteak jartzeko aukera izan dugu bai gure kabuz baita, partaide garen, Ekialde Barrutiko beste elkarteekin batera ere.

Gure eskaerak lau ardatz ditu:

1. Auzoz auzo mugikortasun-irisgarritasunaren analisia sakona egin dezala ahalik eta azkarren, non irtenbideak aztertu, diagnostikatu eta proposatu egiten diren hiritar guztiok gure etxeetako atarietara iritsi ahal izateko, nahiz eta mugikortasun arazoak izan.
2. Mugikortasun Bertikalaren Plana lehenbailehen gauza dezala Intxaurrondon.
3. Gure auzoan aparkalekualen arazoa gero eta larriagoa dela gogoraztea.
4. Intxaurrondoko barne-ibilbide motordunak murrizteko, mikrobusen barne-linea baten analisia eta diseinua egin ditzala baita herritarrek parte hartzeko programa bat ere.

El ayuntamiento de Donostia ha iniciado recientemente, el Plan de Movilidad Sostenible y, hemos tenido la oportunidad de interponer recursos, tanto por nuestra cuenta como en colaboración con otras asociaciones del Distrito Este, del que formamos parte..

Nuestra demanda se ha centrado en cuatro ejes:

1. Que se realice un análisis exhaustivo de movilidad-accesibilidad barrio a barrio a la mayor brevedad posible, en el que se analicen, diagnostiquen y propongan soluciones para que toda la ciudadanía pueda acceder a los portales de las casas aunque tengan problemas de movilidad.
2. Que se ejecute, cuanto antes, el Plan de Movilidad Vertical en Intxaurrondo.
3. Recordar que el problema de aparcamiento en nuestro barrio es cada vez más grave.
4. Que se realice el análisis y diseño de una línea interna de microbús para reducir los trayectos motorizados internos, incluyendo un programa de participación ciudadana.

# Ba al zenekien ... / Sabias que ...?

Auzo- alkatearen figura 1769tik agertzen da Donostian. Hiriko auzo ezberdinetan aurkitu dezakegu data honen geroztik. Altzari dagokionez, 1971an Intxaurrondoko bizilaguna zen IGNACIO BEGIRISTAIN LARBURU jauna izan zen izendatua. Bere garaian, Egiako Galtzada Zubiaurre pasealekua izatera pasa zen. Bestalde, erabakigarria izan zen Gaztainaga zubi berriaren proiektu garrantzitsuari eman zion bultzada.

Hemos encontrado en un artículo de prensa de Javier Sada una mención a los alcaldes pedáneos de Donostia. Nos dice que estas figuras existían en la ciudad desde 1769 . En aquel momento, San Sebastián estaba dividida en dos cuarteles y cuatro barrios; cada uno de los cuales contaba con un alcalde pedáneo y su teniente. La normativa exigía que se tratase de "personas responsables, timoratas, expertas y celosas del bien público."
Sabemos que, en 1840, Lugaritz, Ibaeta y Amara contaban con alcaldes pedáneos y, asímismo, en 1971, se eligieron en Añorga, Astigarraga, Ayete, Ibaeta, Igeldo y Martutene.
En lo que nuestra zona se refiere, en los años anteriores a 1971, tras la anexión de Altza por Donostia, fue Jose Ignacio Urdangarin el alcalde pedáneo de Alza. Sin embargo, a partir de ese año, es un vecino de Intxaurrondo el que ostenta ese cargo: IGNACIO BEGIRISTAIN LARBURU, de la casa Zubiaurre.



Ignacio Begiristain argazkiaren erdian kargua hartu zuen egunean.
Ignacio Begiristain en el centro de la fotografía el día que tomó posesión de su cargo.

No es casualidad, que poco después, la Calzada de Egia pase a denominarse paseo de Zubiaurre. Su intervención fue importante, también, a la hora de impulsar la redacción y construcción del proyecto del puente nuevo de Gaztañaga (Ansiado durante años por los y las intxaurrondotarras, como queda reflejado en el himno del barrio y, hoy en día desaparecido tras la construcción de la rotonda junto a la estación de RENFE. El puente viejo es todavía visible debajo del edifico de la estación).
Este proyecto fue crucial para la vecindad, ya que el puente viejo era muy estrecho y, representaba un grave peligro para el paso de peatones. De hecho, fue la muerte de una persona, aplastada por un camión de obra, lo que hizo que se le diera el impulso definitivo.

# SORLEKU parkearen zain...
# Esperando por SORLEKU...

Intxaurrondon zain gaude Kotxeren azpiko SORLEKU parkea noiz egingo. Prozesu parte-hartzaile bat burutu zen bere garaian eta ikasle, irakasle, bizilagun eta bertako eragile askoren artean auzoak zituen beharrak azaldu genituen. Prozesua egitean, udaletxeko ordezkariek, behin eta berriz, parkearen diseinuan kontuan hartuko zutela esan eta 2022an aurrekontua bazegoela esan ziguten, proiektua onarturik zegoen eta. Hitz polit guzti horien atzetik, eta egindako lan guzti horren atzetik, gaur egun dugun egoera azken hamarkadetan ikusitakoaren berdina da: inolako zainketarik gabeko trastez betetako lursail itxi bat. Prozesu parte-hartzailean egon ginenok ez dugo inolako informaziorik jaso, eta aurrerapausoak beharrean atzerapausoak egon direla esango genuke. 2021etik hona nahi baino gutxiago egin du euria, baina... pasa da denboratxoa zerbait egiteko, ez duzue uste? Harrigarria iruditzen zaigu nola Manteon, prozesu parte-hartzailerik egin gabe eta bizlagunen babesik izan gabe, zein azkar hasi diren zuhaitzak bota eta obrarekin. Intxaurrondon berriz, prozesuak egin, aurrekontua izan eta bizilagunen eskatutako zerbait izanik, ez da ezer aurrera eramaten. Udaleko arduradunei esan nahi diegu, ez gaitzazuela mesedez berriro erabili. Prozesu parte-hartzaileak kontuan har itzazue eta errespetatu emandako hitza. Sorlekuko parkea zain duzue eta bada garaia emandako hitza betetzeko. Auzoak eskatutakoari entzun.



Seguimos a la espera de que el parque de Sorleku sea una realidad.
El proyecto del parque Sorleku de Intxaurrondo lleva parado mucho tiempo. Comenzó en 2017 con un proceso participativo y con el objetivo de que el parque sirviese de punto de encuentro vecinal. Pese a que, tras la presión vecinal, el ayuntamiento dice que se ha reactivado, el solar sigue vacío.

# HIRI BIZIGARRIAREN ALDE
# POR UNA CIUDAD MÁS HABITABLE

IZBE auzo elkarteak bere atxikimendua eman dio Donostia Defendatuz koordinadoraren manifestuari eta, Donostiako udalaren hirigintza politika salatzeko egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten du.

La asociación vecinal IZBE se ha adherido al manifiesto de la coordinadora Donostia Defendatuz y animaa la ciudadanía a tomar parte en las movilizaciones para denunciar la política urbanística del Ayuntamiento de Donostia.

**Maiatzaren 26an: MANIFESTAZIOA, "DONOSTIA DEFENDATUZ, HIRI BIZIGARRIAREN ALDE" lemapean.**

**26 de mayo: MANIFESTACIÓN bajo el lema "DONOSTIA DEFENDATUZ, ¡POR UN MODELO DE CIUDAD HABITABLE!"**

Hiriko hainbat auzo-elkartek eta gizarte-mugimenduk osatzen duten Donostia Defendatuz koordinadorak adierazten du Donostiako egungo hiri-eredua gutxiengo baten onurara bideratuta dagoela; gehiengoaren bizi-baldintzak baztertuta geratzen dira sektore pribilegiatuenen mesedetan. Espekulazio, turismo eta luxuzko negozioen aldeko Udal Gobernuaren erabakiak bata bestearen atzetik hartzen dira, hiria turistifikazio prozesu basatian sartu, etxebizitza larrialdia areagotu, bizilagunak auzoetatik kanporatu, ondare arkitektoniko eta naturala suntsitu, berdeguneak murriztu, merkataritza txikia galdu eta hiriko sare soziokulturalari eragiten dion bitartean. Politika horien ondorioak gero eta larriagoak dira eta donostiar gehienek jasaten dituzte egunez egun. Gure hiria gero eta bizigaitzagoa da.

La coordinadora Donostia Defendatuz, formada por diversas asociaciones vecinales y movimientos sociales de la ciudad, manifiesta que el actual modelo de ciudad de Donostia se orienta hacia el beneficio
de una minoría; las condiciones de vida de la mayoría quedan relegadas en beneficio de los sectores más privilegiados. Las decisiones tomadas por el Gobierno Municipal a favor de los negocios de especulación, turismo y lujo se toman una tras otra, mientras la ciudad entra en un proceso salvaje de turistificación, el problema de la vivienda es cada vez más grave, expulsa a las y los vecinos de sus barrios, destruye patrimonio arquitectónico y natural, reduce las zonas verdes, pierde pequeño comercio y afecta al tejido sociocultural de la ciudad. Las consecuencias de estas políticas son cada vez más graves y las sufre la mayoría de las y los donostiarras día a día. Nuestra ciudad se está haciendo cada vez más inhabitable.

# AUZOKO IRISGARRITASUN ARAZOAK
# LOS PROBLEMAS DE ACCESIBILIDAD EN EL BARRIO

Auzoaren eskaera historikoetako bat irisgarritasuna da. Izan ere, kaleen eta espaloien irisgarritasuna kontuan hartuta hiriko eremu berriak eraikitzen diren bitartean, Intxaurrondo Zaharrean duela 60-70 urte eraiki zirenean bezala jarraitzen duten espazioak daude. Kontuan izan behar da eremu horietako bizilagunak zahartzen joan direla eta egunetik egunera zailagoa egiten zaiela etxetik ateratzea. Los Luises, Gaztelu, Irurak edo Koruko Andra Mari bezalako kaleetan, beharrezkoa da eskailerak, horietako batzuk egoera txarrean, arrapalak zangekin, hesirik edo heldulekurik gabeko eremuak, goroldioa edo irristakorra duten espaloiak eta abar zozkatzea. Hori dela eta, udalari eskatzen jarraitzen diogu egin dezala auzoaren egoeraren eta irisgarritasunari dagokionez izan ditzakeen hobekuntzen diagnostiko bat, herritarren bizitza hain zaila egiten duten oztopo arkitektonikoak ezabatu ahal izateko.



Una de las demandas históricas del barrio es la accesibilidad. Y es que mientras se construyen zonas nuevas de la ciudad teniendo en cuenta la accesibilidad de calles y aceras, como premisa principal, en Intxaurrondo Zaharra hay espacios que siguen igual que cuando se construyeron hace 60-70 años. Hay que tener en cuenta que las personas residentes en estas zonas han ido envejeciendo y cada día que pasa se les hace más difícil salir de sus casas. En calles como Los Luises, Gaztelu, Irurak o Nuestra Señora del Coro, es necesario sortear escaleras, algunas de estas en malas condiciones, rampas con zanjas, zonas sin vallado o agarraderos, aceras con musgo o resbaladizas...Por ello seguimos solicitando al ayuntamiento que haga un diagnóstico del estado del barrio y sus posibles mejoras respecto a la accesibilidad para así poder eliminar las barreras arquitectónicas que tan difícil hacen la vida de los y las vecin@s.




***INTXAURRONDON BIZI ETA EROSI***

***ANIMA TU BARRIO, REANIMA NUESTRO COMERCIO.***